

Olerkaria

Olerkari! abeslari
Zerk zarabiz amesez?
Zerk zarabiz azalgaitza
esanguraz yoranez?

Zuk dakusu Izadian
diz-dizka dagoana,
Yaunaren esku altsu,
gogoratzen dautzuna.

Ori zer dan? Nik ez dakit,
zerbait sumatu arren,
zuk barriz ikusten dozu
gizon askok baiño len.

Egi? On? Edertasuna?
Iru gauzok batera?
Ala zerbait geitxoago
iru gauzon gaiñera?

Zer da ori ain ikusgaitz
izanik dakusuna?
Izaki orok Yaunari
eskarrez dabiltsona?...

Olerkariak.

Nik ez dakit garbi zer dan,
ba-dakit eder dana,
ba-dakit nire biotza
lilluratzen dabela.

Nire barru somatzen dot
alango ames gozo,
zoragarri, maitagarri,
poztuten nauna oro.

Ez da baiña ames utsa,
eskutu-bide baiño;
Egiaren diz-diz onek
naroa zeruraiño.

Alan be artega nabil,
azaldu nai ta ezin...
somatzen dodana eta

esana ez da bardin.

Ori da olerkarion
buruaste latzena,
somatzen doguna baiño
urriago esana.

Igarle? Ameslaria?
Ez dakit nik zer nazan;
ez uste yakin neikenik
lurreko bizitz ontan.

G. Manterola